

Erdiguneko Gaztegunearen itxieraren aurrean udal gobernuaren erabakia salatu nahi dugu, Gaztegunea aldebakarreotasunez ixtean erdialdeko gazte eta gurasoei ezer esan gabe zerbitzua ukatu bait die, aldi berean arrasatear guztioi beste zerbitzu publiko bat murriztuz.

Arazo publiko edo sozialak ez dira zerbitzu publikoak itxi eta murrizten konpontzen, hauek indartu eta aregotzen baizik. Gazteguneak beharrezko funtzio soziala egiten du, gazteak hartatu, hezi eta auzoan komunitatea ehunduz. Auzotar batzuen kezaz baliatu da udal gobernuaren eredu hau erasotzeko. Alde batetik, zerbitzua Musakolara mugitzeak praktikan Erdigunea zerbitzu gabe gelditzea suposatzen du, guzti hau Musakolako Gaztegunea irailean itxiko denean. Gazteen aurkako beste eraso honen aurrean gure babesa zabaldu nahi diegu gazte erabiltzaile, guraso eta Txatxilipurdi elkartearen langileei.

Hau gutxi balitz, egindako astakeriaz konsziente izanda eta erantzukizunei ihes egiteko nahian udal gobernuko EAJ eta PSE alderdiek giroa are gehiago nahasten saiatu dira Emakume Txokoko kopapenaren auzia eztabaidaren erdian ezarriz. Honekin azken zerbitzu honetako erabiltzaile eta langileekin zeukaten akordioa bertan behera utzi duela esan du PSE-ko ordezkari eta Berdintasuneko zinegotziak, tren geltoki zaharrear leku aldatzeko hitza emanda bait zuen aurretik.

Zerbitzu honetako erabiltzaileak urtean daramatzate leku duin eta seguru bat eskatzen. Gaur egun daukan kokapena herriko puntu ilunetako batean kokatuta baitdago.

Arrasateko emakume eta gazteok ez dugu horrelako gobernu bat merezi. Zerbitzu publikoak areagotzearen alde eta murrizketa ororen aurka. Gazteak eta emakumeak erdigunean!